

# “Ilunpetik argitara”



**“In memoria nostrum et in populi memoria ad eternum”**

MIREN USABIAGA ARTOLA

# “Ilunpetik argitara”

Maria Oiartzabal esna zegoen, begiak zabal-zabal oilarraren lehenengo kukurrukuak jo zuenean; goizeko seiak besterik ez ziren arren ordu bat baino gehiago zeraman sabaiari begira. Hasi berria zen eguneko lehen pentsamenduetan murgilduta harrapatu zuen bigarren kukurrukuak. Orduantxe azaldu zitzaion Mariari irribarre txikia ahoan, izan ere, “Kaxkagorri” oilarra ez zen bigarren kantuan batere fin ibili. Berehala desagertu zitzaion, ordea, pozaren arrastoa. Tiro hots lehorrak sumatu zituen berriro ere eta horrek erne baino erneago jarri zuen. Gorputz osoko ileak lastu zitzaizkion eta hotzikara indartsu batek astindu zuen emakume puska, goitik behera, oinetako behatzetatik bururaino.

Ez zen aurreneko aldia. Egunak zeramatzaten inguruan tiro hotsak entzuten; gero eta maizago, gero eta ozenago. Edonola ere, goiz horretakoak bereziki



sumatu zituen gertu. Pentsamendu mingarri bezain ilunak alde batera utzi nahian-edo, bezperan ohe ondoko aulkian utzitako etxeko bata eta zapatilak soinean jarri eta sukaldarantz abiatu zen.

Suak oraindik piztuta zirauen, epel. Sutondoko egur puska pare bat hartu eta bizi-bizi jarri zuen berriro ere. Bertara begira jardun zuen pixka batean: su-zalea zen, oso. Suak beroa, segurtasuna eta familia ekartzen zizkion gogora. Zenbat ordu igaro ote zituzten suaren inguruan etxeko guztiak! Emakume bakarra zen Maria, senarra eta lau semeen artean. *Etxeko oilanda, bere arrimuan txita guztiak dituela*, esan ohi zion senarrak adarra jo nahian. Tupustean malenkoniaren mina sentitu zuen bular aldean. Eskuak gurutzatu zituen bihotz aldera eta nekez eutsi zien begietatik ihes egin nahi zuten malkoei. Hiru urte baino gehiago igaroak ziren benetako goxotasunik bizi ez zutela. Lehenengo Txominek, seme zaharrenak, alde egin behar izan zuen derrigorrezko bi urteko soldaduska betetzera; hura itzuli zenean, hurrengoa, Joxe, eraman zuten. Jada urtebete zen alde egin behar izan zuela. Maria minez bizitzen ari zen semeen urruntzea, are gehiago azkenarekin, izan ere, gerrak eztanda egin berri zuen eta jada ari zen hurbiltzen Euskal Herrira. Hala zioten, bederen, irratian ematen zituzten *parteek*.

Beste behin ere pentsamendu mingarriak alboratu eta eguneroko beharrari ekin zion. Ontzi bat esne ipini zuen sutan berotu zedin. Bitartean, Mariak etxeko ate nagusia zabaldu zuen. Kanpora irten bezain laster goizeko ihintzaren usaina eta giroa arnastu zituen sakon. Izugarri gustatzen zitzaizkion uda beteko goiz haiek. Momentu gutxi izaten zituen egunean bere buruari eskainitakoak eta horixe izaten zen horietako bat. Emakumeari, bigarrenez egun horretan, irribarretxo batek egin zion ihes. Ezin ukatu momentu horiek zuten magia eta sortarazten zioten poza. Aire sakon

arnastearekin batera hamaika sentsazio barneratu zituen: belarraren frexkura, goizeko ihintzaren goxotasuna, isiltasunaren bakea, behin-behineko lasaitasuna.

Parez pare zuen iturrirantz jo zuen. Bertan, soinean zeraman bata, harizko kamisioia eta barruko arropa erantzi ostean, ur hotzez igurtzi zuen gorputz osoa eskua baliatuz. Lasai aritu zen, ur hotzak gihar guztiak esnatu eta martxan jartzeko adina denbora. Etxean egindako xaboi-pastilla erabili zuen urarekin batera garbi, frexko eta biziberritua sentitzeko. Behin errituala amaituta, lehortu, arropa garbia jantzi eta etxerako bidea hartu zuen.



*Dinbi-danba, dinbi-danba!!!* Tiro hots bortitzek atera zuten Maria bere pentsamenduetatik. Berriro ere beldurra, izua, ikara. Ziztu bizian egin zuen etxerainoko bide labur

bezain luzea. Logelara iritsi zenean, ilunpetan oraindik ere, leiho alderantz abiatu zen eta lo seko jarraitzen zuen senarra astindu zuen.

*-Esna hadi, Prexku! Hemen ditiagu, bertan zeudek!* -egin zion garrasi Mariak bere onetik aterata.

*-E? Zer? Zeintzuk? Hago lasai emakumea!*- lortu zuen gizonak erantzutea.

Prexkuk, erabat lekuz kanpo, artean erdi lotan, ez zuen ezer ulertzen. Mariak arrapaladan kontatu zion esnatu zenetik sumatu zituen gorabeherak. Emakumea izututa zegoen, beldurrak airean, inoren eta inolako babesik gabe. Egoeraren larritasunaz jabetuta, ihes egin behar zutela proposatu zion senarrari. Prexkuk emaztea hain kezkatuta ikusita buruarekin baietza egin eta janzten hasi zen.

Andrea, gizona janzten utzita, oraindik ere lotan ziharduten semeak esnatzera abiatu zen ziztu bizian. Lehendabizi Txominek, seme gazteenarekin batera lo egiten zuenera joan zen. Mariak leihoak zabaldu orduko eskua ahora eramane zuen barruko emozio uholdeari eutsi nahian. Zaharrenak gazteena, Xebastian, gerritik bilduta zeukan balizko arriskutik babestu nahiko balu bezala. *Nortasun handiko mutila dun Txomin, Maria*, pentsatu zuen bere baitan. Semeak urteak zeramatzan Errenteriako alderdi jeltzalean Euskal Herri eta abertzaletasunaren alde borrokan. Mutil konprometitua zen, aldarrikatzailea, oinak lurrean zituena. zintzoa. Asko estimatzen zuten leku guztietan. Soldaduskatik itzuli berria, laster ezkonduko zelakoan zegoen, aspaldi baitzebilen Miura baserriko Arroxalirekin.

Xebastian, berriz, familiako ameslaria zen. Mutiko lasaia, patxadatsua, malenkoniatsua. *Etxeko poeta* deitzen zion maitekiro Txominek; bertsotan trebea zen gazteena, ez ordea eskolako lanetan. Behin baino gehiagotan etorria zen fraileen zigorra “eskuetan” ala “bizkarrean” zuela. Horrexegatik beharbada babesten zuen Txominek anaia gazteena, bai baitzekien bera baino askoz ere ahulagoa, hauskorragoa zela.



Mariak, momentuaren estualditik ihesi, maitekiro esnatu zituen bi gazteak. Mutilak berehala ohartu ziren egoeraren larritasunaz. Ziztu bizian jantzi eta sutondora hurbildu ziren denon artean erabakia hartzeko asmoz.

Bien bitartean Prexku hirugarren semea, Enrike, lotan zegoen gelarantz abiatu zen. Leiho aldeko ohean zegoen gaztea. Ondoko oheak hutsik jarraitzen zuen Joxeren esperoan. *Luze joko dik, Prexku! Oraindik urtebete baino gehiago beharko dik itzultzeko!* pentsatu zuen bere baitan. Prexku isila eta lasaia zen. Hitz gutxiko gizona, barrua hustea kostatzen zitzaiona. Bihotzaren sakonean zeraman, ordea, falta zuen semearen hutsunea. Ez zen egun bakar bat ere igarotzen Joxe burura ekarri gabe. *Non ote zebilek? Bizirik jarraituko al dik? Zergatik eman behar ditiagu gure semeak arrotza den herri batera?* Erantzunik ez zuten galderak ziren, behin eta berriz burura etortzen zitzaizkionak, mingarriak, itolarria eragiten ziotenak...

Enrike astinaldi batez esnatu zuen aitak. Mutil lasaia zen, bere lekua topatzen ari zena lau anaien artean. Bere burua islatuta ikusi zuen Praxkuk semearen irudian. Mutil isila, bakartia, isiltasuna eta bakardadea lagun zituena. Hurrengoia izango zen soldaduskara joaten Joxe bueltatzean; *ordurako gerra bukatuko ahal duk*, pentsatu zuen aitak bere artean. Gaztea, artean ere erdi lotan, jauzi batez ohetik atera eta sukaldean zen aita konturatu orduko.

- Semeak- hasi zitzaaien ama- alde egin beharra dugu, ezin gara hemen geratu...

Tiro hots bortitzek eten zuten Mariaren hitzalditxoak. Isiltasuna nagusitzearekin batera, izuak hartu zituen bostak. Gertu zeuden etsaiak. Mariak Prexkuri begiratu zion. Barre-algarak ere entzun zituela iruditu zitzaion, baina ez zuen ezer esan. Egoera laugarria ikusita Txominek hartu zuen hitza:

*-Goazemazue hemendik, ya!!! Dena dagoen-dagoenean utzi eta Miurarantz abiatuko gara; baserri handia da eta familia osoa dago bertan. Elkarrekin babestuago egongo gara.*

Mariak Prexkuri begiratu zion oniritzia jaso nahian.

*-Aurrera zaitetze zuek, Maria. Nik behiak jasoko ditut ukuilura, bestela akabatuko dituzte-eta.*

*-Aita, mesedez, ahaz itzazu behiak eta alde egin dezagun lehenbailehen, -erantzun zion haserre bizian seme zaharrenak.*

*-Ezta pentsatu ere, bost minutuko kontua izango duk, Txomin. Segi zuek eta gida itzak hik anaiak eta ama Miurarantz.*

Aitaren egoskorkeria ezagututa, Txominek berehala eman zuen amore. Prexkuk ukuilurako bidea hartu zuen, baina ezustean buelta eman eta Miura baserrirako bidea hasi berri zuen familiakoengana zuzendu zituen begiak; hiru semeengana hurbildu eta banan-banan muxu eta besarkada sentitu bana eman



zien. Mariarentzat gorde zituen bere ahotik atera ziren hitz bakarrak: *maitia*, *ederra*. Begietara begiratu zion zintzo, eta bere bularraren aurka estutu zuen, gogor. Emaztea askatu orduko alde egin zuen ukuilurantz. Maria zur eta lur zegoen, baita hiru semeak ere, izan ere, ez zen ohikoa jokabide hori aitarengan, inolaz ere. Elkarri begiratu zioten eta bizi izandakoa buruan bueltaka zutela Miura baserrirako bideari ekin zioten.

Bidea aldapa gorakoa zen. Ez zen inor ikusten inguruan. Jendea euren etxeetan zegoen, beldurrak airean. Mendiaren bestaldean, magalean, algarak eta tiro hotsak entzuten zituzten, gero eta gertuago. Ia konturatu gabe martxa bizkortu zuten bakoitza bere pentsamenduetan murgilduta. Azkar zihoazen laurak, isil-isilik. Ez zeukaten hitz egiteko gogorik. Tiro eta algara hotsek sortutako izuaz gain, aitarekin bizi izandakoa oraindik ere presente zuten denek.

Berehala iritsi ziren Sagartzulorako bidegurutzera; kaskoan zeudenez beherantz, trenbiderantz begiratu zuten eta berehala jabetu ziren eurengana zetozela, uste baino gertuago zituztela. Berrogei soldadu inguru izango ziren, armak eskuetan zituztela. Aurrean zihoan soldaduak zutoihala zeraman makila bati lotuta. Bertan Espainiako bandera ikus zitekeen. Txominek berehala ezagutu zituen. Bi egun lehenago entzun zuen Batzokian Nafarroan sortu berria

zela Cristo Rey izeneko komando bortitz eta odoltsua. Trenez iritsiak ziren Gabierrotara eta handik oinez Lezorako bidea hartu zuten kaira iristeko asmoz. Gizonak ez zeuden bere onenean; algarek eta



jokabideak edanda edo drogen pean zeudela erakusten zuten garbi. Tiroka ari zitzaizkion bidean harrapatzen zuten guztiari.

Txominek pausoa azkartu zuen eta amari heldu zion besotik:

*-Ama!, ez diot traza onik hartzen honi. Azkarrago joan beharko genuke. Ez esan ezer anaiei, baina arrisku larrian gaude.*

Mutilak atzean utzitako biderantz zuzendu zituen begiak. Etxetxo baserria bostehun metrora zuen. Begiak ez ziren ageri etxeke larrean eta aitaren itzala sumatu zuen eurengandik laurehun metrora. Eskerrak, pentsatu zuen bere baitan, *laster elkartuko gara denak Arroxaliren baserrian.*

Bien bitartean, Prexkuk behiak di-da batean sartu zituen ukuiluan akuiluarekin astinduz. Zortzi behiak patxada ederrean utzi ostean, hesia itxi eta ziztu bizian abiatu zen bidean gora. Hezurrek protesta egiten zioten behar baino azkarrago ematen zuen pauso bakoitzerako. *Adinak ez dik barkatzen, Prexku,* pentsatu zuen bere baitan, baina ez zuen abiadura moteldu. Ama-emeak antzematen zituen beregandik laurehun bat metrora.

Dena oso azkar jazo zen. Tiro hotsak bertan zituzten ama-semeeek, aldamenean jada. Ez zuten ezertarako astirik izan. Batzuen garrasiek eta besteen algarek sinfonia beldurgarria osatu zuten airean. Soldaduek tiroka jarraitzen zuten, etengabe.

Prexkuk, bat-batean zitzada bizia sumatu zuen bihotzean. Lurrera erori zen, bide bazterrean. Ezin zen altxatu, mina jasanezina zen eta gihar guztiak paralizatuta zituen. Begiak zerurantz jaso zituen bere azken hatsa hartuko zuelakoan. Konortea erdi galdurik,



arreta berezia jarri zien beregandik gertu entzuten zituen oihuei. Mariaren ahotsa sumatu zuen; bai, bera zen, zalantzarik gabe. Gero eta intentsitate handiagoz, emaztearen garrasiek basoa, herria, zerua... zeharkatu zuten. Prexkuk konortea galdu zuen erabat; iluntasuna nagusitu zen.

Laurehun metro gorago Maria eta bere hiru semeak lurrean zeuden zerraldo, tiroz jota. Soldadu amorratu batek, gorrotoa begietan zeriola, armari buelta eman, baioneta eskuan hartu eta Txominen gorpua zena hiru, lau bider zeharkatu zuen. Gazteak gerrian zeraman ikurrinak komando kidearen amorrua eta gorrotoa piztu zituen eta haren gainean aritu zen txiki arraio egin eta banderaren arrastoa ezabatu zuen arte.

Soldaduek euren bidea jarraitu zuten Lezorantz, heriotza eta odol epela atzean utzita, ezer gertatu ez balitz bezala.

Momentu horretan tristuraren isiltasuna nagusitu zen inguru guztian. Txoriek mututu zituzten euren kantu apalak, haizeak utzi egin zion mugitzeari eta hodeiek ere bidaiatzeari utzi zioten, gertatutakoarekin bat egin nahian.

Gurdi baten gurpilen hotsek hautsi zuten isiltasun mingarria. Orgaren gainean, kale garbitzailea zihoan, Felix. Sagarzuoloko bidegurutzera iritsi zenean lau gorpu ikusi zituen bide erdian. Bihotzak eztanda egin zion Maria Oiartzabal eta hiru semeak zirela konturatu zenean. Jauzi batez gurditik jaitsi eta negarrari ekin zion inoiz ez bezala. Gizonaren malkoak lur bustiarekin nahasi ziren, lokatz mingotsa osatuz. Felixen ukabilkada sutsu eta sentituek lurra astindu zuten bidegabekeria salatu nahian. Alferrik. Berrogei urte baino gehiago ziren Usabiaga-Oiartzabaltarrak ezagutzen zituela.

Gorpuengana hurbiltzean, bizkarrez tirokatu zituztela konturatu zen, koldarki, animaliak izan bailiran. Negar malkotan, ezin adierazizko bihozmina, azalean zein ariman zuela, gorpuak gurdira igotzen hasi zen banan-banan. Lehendabizi, inoiz idatzi gabeko balizko errespetuaren izenean Maria zena igo zuen. Poliki, ahal zuen bezain duin kokatu zuen emakumea, eskuak bular gainean gurutzatuta; bakearen irudia zirudien. Ondoren Txomin jaso zuen. Seme zaharrenak ere lauzpabost tiro zituen bizkarrean, baina mingarriena ez zen hori, izan ere, lau baioneta arrasto zeramatzan sabel aldean, gerrikoaren inguruan.



Enrikek eta Xebastianek, seme gazteenek ere hiruzpalau tiro arrasto zituzten buruan nahiz bizkar aldean. Hiltzaileek ez zuten gupidarik izan.

Felixek *aitaren* egin zuen lauren alde txikitatik ikasitako sinesmenak bultzaturik, baina aldi berean, barru-barruan madarikatu zituen hilketa bidegabeak burutu zituztenak. Infernua opa zien, bertan erre zitezela, sufrimendu amaiezinean...

Gizonak Lezoko hilerriko bidea hartu zuen Sagarzuloko bidegurutzean odol arrastoak utzita, betiko. Negar tanta lodiek aurpegia zeharkatzen zioten ikusmena eragozteraino. Berdin zitzaion, bidea hamaika aldiz egina zuen eta nahigabe ere egingo zuen beste behin ere, begiak itsututa bazituen ere. Azkeneko bidaia; azkena Maria eta bere hiru semerentzat...

Miura baserrian Arroxalik sumatzen zuen zer edo zer larria gertatu zela. Eztabaida sutsu baten ostean, eta Andres anaia zaharrenaren arrimuan bidera atera zen. Handik gutxira Felixekin egin zuten topo bi anaia-arrebek. Zerua ilundu zen bat-batean eta gaua nagusitu zen; mundua begi bistatik desagertu zitzaien. Garrasi amaiezin eta lazarri batek hartu zuen Arroxalinen eztarria. Ezin zuen sinetsi bere begiek erakusten ziotena. Ez zuen sinetsi nahi. Oinetan sekulako pisua sumatu zuen; ezin izan zion bere pisuari eutsi. Begirada galdua zuzendu zion anaiari eta segidan, erori egin zen zorabiatuta.

Prexku handik gutxira itzuli zen bere onera. Hezurak minbera zituen eta oinaze jasanezinak astintzen zuen gorputz osoa. Bi eskuak lurrean jarrita altxatzen hasi zen. Burua jira-biraka zuen eta berriro ere erortzeko zorian egon zen. Ozta-ozta eutsi zion orekari. Bide ertzean zegoen haritzera hurbildu zen arnasa hartu nahian. Garrasi ozen eta beldurgarri batek altxarazi zion burua. Emakume baten ahotsa zen: Arroxali. Ez zuen zergatia inoiz jakin; edonola ere, negarrez hasi zen. Malkoek aurpegia bustitzen zioten bitartean, besoak jaso eta intzirika hasi zen zeruari begira.

*Urte bete geroago...*

Joxek aurrean zuen ispiluan islatuta ikusi zuen bere burua. Komuneko mirailak irudi txartua, makala itzuli zion: hamar bat kilo gutxiago, begi-zulo galantak, eta bizar luzeak ere ez zion aurpegi zurbilari mesederik egiten; arropa zahar zein zatarrak, are gutxiago.

Tren geltokiko komunetik atera zen; “petatea” bizkar aldera bota eta zegokion nasara zuzendu zen. Hotzak eta goseak amorratzen zegoen; gazteak gorputzean zeukan jada hotza hezurretaraino sartua. Azkeneko bi urte eta erdiek izugarri eraldatu zuten Joxeren gorputza zein arima. Soldaduskara abiatzean “tramitea” izango zelakoan zegoen, baina gerrak bere gurpil zoroan sartu zuen, irtenbiderik gabe, zentzurik gabe. *Ez diat sekulan ikusitakoaz hitz egingo, inoiz ez. Bukatu duk. Akabo..*, agindu zion bere buruari. Etxera iritsi nahi zuen, besterik ez. Jaka goraino igo zuen trenera sartzen zen bitartean. Sei ordu geroago iritsi zen Donostiako tren geltokira. Handik oinez abiatu zen Etxetxorantz.

On egin zion ibilaldiak. Ategorrieta, Herrera, Pasaiako portuak oroitzen ederrak ekarri zizkioten gogora Joxeri. Pasai San Pedro eta Donibaneko bistak, gerra garaia izanik ere, sekulako poza eragin zion, etxetik gertu zegoela sentitzen baitzuen. Pasai Antxo zeharkatu eta Errenteriako bideari ekin zion.

Herrian isiltasuna zen nagusi. Ilunabarra zen eta ez zen jende arrastorik ikusten Nafarroa etorbidetik barrena. Iluntasuna eta bakardadea lagun zituela ailegatu zen *Papelerako zubira*. Laurehun metro besterik ez zuen falta Etxetxora iristeko.

Bideari gogotsu ekin zion, malda gora. Aurreko bi urte eta erdiko penak eta miseriak arimaren txoko batean alboratuta, pozik zihoan, etxekoak besarkatu, sentitu nahian. Beste behin ere gehiegizko isiltasunak arreata piztu zion. Urrutira ikusten zuen bera jaiotako baserria. Etxetxon ez zegoen, oster, ez argi arrastorik, ezta ahotsik ere. *Non ote daude etxekoak?* galdetu zion bere buruari.

Pausoak azkartu zituen. Baserria aurrez aurre zuen.

-*Ama! Aita! Non zaudete? Ni naiz, Joxe.*-egin zuen deiadar.

Mendiak bere ahotsaren oihartzun zorrotza itzuli zion, erantzun gisa.

-*Enrike, Txomin, Sebastian!!* -deitu zien anaiei.

Ate nagusira hurbiltzean poliki zabaldu zuen ia soinurik egin gabe; sukaldeko argi dardaratsu batek jaso zuen. Sua piztuta zegoen. Sutondoan irudi bakarra antzeman zuen.

-Aita? -galde egin zuen dardarati txistua ezin irentsirik.

Gizonezkoaren irudiak buelta eman zuen semearen ahotsak errealitatera itzuli izan balu bezala.

-Joxe? *Hi al haiz?* -ihardetsi zion aita ematen zuenak.

-Aita? *Bakarrik zaude? Non daude ama eta besteak?* -galdetu zuen Joxek dar-dar.

Prexkuk ezin izan zion berehalakoan erantzun. Korapiloa egin zitzaion eztarrian, bihotzean, gorputz osoan... Semea, gizonaren sufrimendua sumatuta hurbildu egin zitzaion eta gogotsu besarkatu zuen aspaldiko partez. Arnasa sakon ondoren ama eta anaiekin gertatutakoa kontatu zion semeari. Ez zen xehetasunik kontatzeko gai izan. Ez egun horretan ezta hurrengo hogeita bost urtetan ere, bizirik iraun zuen bitartean.



Maria Oiartzabal, Enrike Usabiaga, Xebastian Usabiaga eta Txomin Usabiaga

Bizitzak aurrera jarraitu zuen, nolabait esateko, aita-semearentzat, Arroxalirentzat, eta lezoarrentzat, erail ez zituztenentzat... Nolanahi ere, herriaren eta familiakoon memorian geratu da betiko Etxetxoko Maria eta hiru semeen hilketa koldar eta miserablea. Horrelaxe gorde da sekretua, beldurraren mehatxupearan oraintsu arte. Baina egiak beti topatzen du bere bidea: askatasunaren bidea.

*Goian beude birramona Maria eta, Xebastian, Enrike eta Txomin osaba txikiak.*



**“In memoria nostrum et in populi memoria ad eternum”**

MIREN USABIAGA ARTOLA - 2015-10-28